

Upelak hasi dira hustutzen

SAGARDETEGI SASOIA NAFARROAN. Jorge Nagore pilotariak egin zuen lehen txotxa atzo, Aldazko Martitxonea sagardotegian; maiatzaren 1ean amaituko da denboraldia

EDURNE ELIZONDO - ALDATZ

Nafarroan ere hasi da aurtengo sagardotegi sasoia. Jorge Nagore pilotariak egin zuen lehenengo txotxa, atzo, Aldazko Martitxonea sagardotegian. «Sagardo berria», erran zuen Aspekoak, lehenengo zurrutada egin eta gero. «Txotx», oihukatu zuen, jarraian, etxeko jabe Inaxio Begiristainek. Nagoreren atzetik Martitxonean atzo bat egin zuten guztiak hurbildu ziren upeletara, aurtengo sagardoa dastatzeko asmoz.

Sagardotegia lepo beteta zegoen; kirolari ezagun anitz zegoen: Nagoreekin batera, Beloki anaiak, Carlos Armendariz eta Arturo Arbizu pilotariak han ziren, bai eta Ladis Galarza pilotari ohia ere.

Futbolariaren artean, Osasuna Cesar Krutxagak, Riverok, Cuellarrek, Valdok eta Josetxok egin zuten txotx. Manolo Aroza eta Bittor Elizagoien bertsolariak ere sagardotegian ziren, bai eta EHNEko Nafarroako idazkari nagusi Fermin Irigarai, Nafarroako Gobernuako Nekazaritza kontseilari Javier Etxarte eta Be-

◻ Datua

150.000

Kopuru hori da, litrotan, Nafarroako Sagardo Egileek aurtengo denboraldian euren sagardotegietan banatuko dutena, maiatzaren 1a bitarte.

AURPEGI EZAGUNAK

Nagore, Beloki anaiak, Armendariz, Galarza, Krutxaga, Rivero eta Valdo izan ziren Martitxonean

rrri Txarrak musika taldeko kideak ere, besteak beste.

Inaxio Begiristain batetik bestera ibili zen gonbidatuen atzetik, deus izan ez zezaten faltan. Bitartean, lehen txotxa egin eta berehala bakailao tortillak prestatzen hasi zen Ainhoa Garaikoe-txea sukaldean. Gonbidatuak eseri eta berehala hasi ziren bazkaria dastatzen: bakailao tortillaren ondotik txuletoi ederra,



JORGE NAGORE pilotariak ireki zuen Nafarroako sagardo denboraldia. Aldazko Martitxonean egin zuten ekitaldia. LÁNGER FERNÁNDEZ ARRIOLABE / ARGIAZKI PRESS

eta, postreerako, intxaurrak, gazta eta irasagarra.

Edateko, noski, sagardoa. Nafarroako Sagardo Egileen Elkar-teak 150.000 litro sagardo banatuko ditu aurtengo denboraldian, Begiristainek azaldu zigunez. Bost sagardogile biltzen dituzte elkarte horrek, Begiristain bera, eta Lekarozko Larralde, Beruete Txasenekoborda eta Behetxonea eta Lekunberriko Toki-Alai sagardotegietako nagusiak.

«Aurten sagar gutxi izan dugu eta kanpotik ekarri behar izan ditugu, Normandiatik, Britainiatik eta Galiziatik; baliatutako sa-

garren % 20 besterik ez da berta-koa», esan zuen.

Sagar horiekin «sagardo oso ona» egin du Begiristainek: «Azukre eta glukosa gehiago du iazkoak baino; oraindik sagardo berria da, baina ona, eta kolore ederrekoa».

Manolo Aroza bertsolariaren ustez, «hilabete barru puntuan» izanen da. Hala erran zizun, bakailao tortilla jaten zuen bitartean. Osasunako Valdori eta Riverori ere gustatu zitzaizkien. Harridura aurpegia jarri zuten hasieran sagardotegiko giroa ikusita, baina probatu ondoren, «oso ona», azpimarratu zuten.